



2002/09/23ko prentsa-oharra

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI)2002ko abuztua

BIDAIARIEN SARRERAK %12 GEHITU DIRA 2002KO ABUZTUAN

Aurtengo orain arteko aldiari (urtarrila-abuztua), 2001eko aldi berean baino 90.000 sarrera gehiago erregistratu dira

2002ko abuztuan, 174.496 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino ia 18.000 sarrera gehiago, hau da, % 12ko gehikuntza, Eustatek eskainitako datuen arabera. Bidaiari-sarrerak % 18 gehitu dira Bizkaian, % 13 Gipuzkoan, eta % 5 Araban.

Atzerriko bidaiarien sarrerak % 24 igo dira, hots, Estatutik datozen bidaiarien kopuruak izan duen gehikuntzaren (% 4) oso gainetik. Atzerriko bidaiarien kopurua igo egin da hiru herrialdeetan: % 7 Araban, % 27 Bizkaian eta % 26 Gipuzkoan. Eta Estatutik datozen bidaiariak % 11 gehitu dira Bizkaian eta % 5 Gipuzkoan; Araban, berriz, % 10 urritu dira.

Estatutik datozen bidaiarien artean, batik bat Madrildik, Andaluziatik, Valentziako Erkidegotik, Asturiastik eta Gaztela eta Leondik datozenak gehitu dira. Pixka bat gutxitu dira, aitzitik, Murtziatik, Kantabriatik eta Aragoitik etorriak, besteak beste. Atzerriko bidaiarien artean, aipatzekoa da Italiatik, Frantziatik, Erresuma Batutik eta Alemaniatik datozen bisitariek izan duten gehikuntza; pixka bat urritu dira, oster, AEB-Kanadatik etorriak.

2002ko abuztuan, 363.836 gaualdi erregistratu dira. Horrenbestez, aurreko urteko aldi berean baino ia 43.000 gehiago izan dira, hau da, % 13 gehitu dira ehuneko-baliotan. Egindako gaualdien kopuruak % 21eko hazkundea izan du Bizkaian, eta % 13koa Gipuzkoan; Araban, berriz, bere horretan iraun du (% 0).

Euskal AEko hoteletan ostatu hartu duten bidaiarien batez besteko egonaldia luzatu egin da 2002ko abuztuan; iaz 2,05 egunekoa zen, eta 2,09 egunekoa izan da aurtengo abuztuan. Batez besteko egonaldiaren hobekuntza hori Araban (% 5) eta Bizkaian (% 2) gertatu da; Gipuzkoak, aldiz, bere horretan jarraitu du (% 0).

Plazen nahiz gelen betetze-maila % 9 goratu da; hazkundera askoz handiagoa izan da Bizkai-Gipuzkoetan, Araban baino.

Nekazalturismoa: gehitu egin dira bidaiarien sarrerak (% 19) eta gaualdiak (% 17)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 13.186 bidaiari-sarrera zenbatu dira 2002ko abuztuan, aurreko urtean baino % 19 gehiago: % 39 ugaritu dira Gipuzkoan, % 13 Bizkaian; eta % 18 urritu dira Araban. Gehikuntza hori Estatutik datozen bisitariek eragin dute, % 27 ugaritu baitira. Izan ere, atzerrikoak % 15 urritu dira Euskal AEko guztizkoan.

Egindako gaualdiak 48.303 izan dira, hau da, 2001eko abuztuan baino % 17 gehiago, eta hori Euskal AEko hiru herrialdeetan gertatu da: Araban (% 14), Gipuzkoan (% 21) eta Bizkaian (% 13).

Batez besteko egonaldia % 1 laburtu da Euskal AE osoan. Araban % 39 luzatu da, Gipuzkoan % 13 laburtu da, eta Bizkaian bere horretan iraun du (% 0).

Plazen eta gelen betetze-maila handitu egin da —% 9 eta % 8, hurrenez hurren— Euskal AEko guztizkoan.

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Tel.: +34-945 017 506 Faxa: +34-945 017 501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--

1. taula: hileko emaitzak

EUSKAL AE						ARABA/ALAVA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
08/2002	%	08/2001	%	D%		08/2002	%	08/2001	%	D%		08/2002	%	08/2001	%	D%		08/2002	%	08/2001	%	D%	

HOTEL ESTABLEZIMENDUAK

BIDAIARIEN SARRERA	174.496	100	156.426	100	12	25.287	100	26.580	100	-5	61.071	100	51.938	100	18	88.138	100	77.908	100	13
Estatukoak	102.439	59	98.261	63	4	16.905	67	18.727	70	-10	34.531	57	31.017	60	11	51.003	58	48.517	62	5
Atzerrikoak	72.057	41	58.165	37	24	8.382	33	7.853	30	7	26.540	43	20.921	40	27	37.135	42	29.391	38	26
GAUALDIAK	363.836	100	320.904	100	13	47.210	100	47.341	100	0	127.073	100	105.205	100	21	189.553	100	168.358	100	13
Estatukoak	229.150	63	209.951	65	9	32.827	70	34.393	73	-5	76.998	61	63.692	61	21	119.325	63	111.866	66	7
Atzerrikoak	134.686	37	110.953	35	21	14.383	30	12.948	27	11	50.075	39	41.513	39	21	70.228	37	56.492	34	24
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,09		2,05		2	1,87		1,78		5	2,08		2,03		2	2,15		2,16		0
PLAZAKO BETETZE MAILA	65,72		60,48		9	56,13		55,47		1	57,25		50,77		13	76,58		70,73		8

NEKAZALTURISMOA

BIDAIARIEN SARRERA	13.186	100	11.083	100	19	1.940	100	2.356	100	-18	3.967	100	3.508	100	13	7.279	100	5.219	100	39
Estatukoak	11.360	86	8.926	81	27	1.724	89	1.793	76	-4	3.275	83	2.923	83	12	6.361	87	4.210	81	51
Atzerrikoak	1.826	14	2.157	19	-15	216	11	563	24	-62	692	17	585	17	18	918	13	1.009	19	-9
GAUALDIAK	48.303	100	41.172	100	17	5.890	100	5.169	100	14	14.699	100	13.020	100	13	27.714	100	22.983	100	21
Estatukoak	42.255	87	33.577	82	26	5.121	87	3.725	72	37	12.422	85	10.326	79	20	24.712	89	19.526	85	27
Atzerrikoak	6.048	13	7.595	18	-20	769	13	1.444	28	-47	2.277	15	2.694	21	-15	3.002	11	3.457	15	-13
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	3,66		3,71		-1	3,04		2,19		39	3,71		3,71		0	3,81		4,40		-13
PLAZAKO BETETZE MAILA	71,34		65,68		9	47,50		44,11		8	67,74		68,29		-1	82,47		72,05		14

Iturria: EUSTAT